



**BIKOTEEN ARTEAN HIZKUNTZA OHITUREN
ALDAKETA. IKERKETA-LANA**

**IKERKETAREN EMAITZA ETA
ONDORIOEN LABURPENA**

2009ko ekaina

Aurkibidea

1	Sarrera.....	2
2	Ikerketaren fitxa teknikoak	3
2.1	Ikerketaren fitxa teknikoak (egileak eta epeak).....	3
2.2	Ikerketaren helburuak	3
2.3	Aztertutako bikoteak.....	3
	• NONGO BIKOTEAK ETA ZENBAT?	3
	• BIKOTEEN EZAUGARRIAK.....	4
	• BIKOTEEN LOKALIZAZIOA.....	4
3	Ikerketaren ondorioak (laburpena)	5
3.1	Egindako azterketa eta horretarako erabilitako ikuspegi teorikoa	5
3.2	Harremanaren hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteen sailkapena.....	8
3.3	Hizkuntza aldaketa prozesuaren gakoak.....	10
3.3.1	GAKO OROKORRAK:	10
3.3.2	ZERGATIAK. ZERK “MUGITU” DITU BIKOTE HAUEK ALDATZERA?.....	12
3.3.3	ZAILTASUNAK:.....	14
3.3.4	ESTRATEGIAK:	16
4	Bibliografia	18

1 Sarrera

Euskara familia bidez transmititzeak duen garrantziarekiko adostasunetik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Soziolinguistika Klusterrari familia transmisioaren testuinguruan, *hizkuntza-ohituren aldaketaren fenomenoaren* azterketa egiteko eskatu dio. Eskaera horri erantzunez, Soziolinguistika Klusterrak *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa* izeneko ikerketa diseinatu eta egin zuen HPSrentzat, eta ikerketa horren emaitzen laburpen bat duzue testu hau.

Fenomeno horren azterketan ikerketa bidez urrats bat emateko, *hizkuntza-ohitura aldatu duten* EAEko *bikoteak* bilatu eta aztertu dira. Beren kasuak gertutik ezagutu, beraiengandik ikasi eta aldaketa prozesu horien gakoak zein diren sakonagotik ezagutu nahian.

Ikerketa honen ideia, hasiera batean, Buruntzaldeko Familia bidezko transmisioa indartzeko egitasmoaren *Koordinazio Batzordean* sortu zen. Bertan biltzen dira HABEko, Buruntzaldeko Udaletako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako, Hezkuntza Saileko, Urtxintxa eskolako eta Soziolinguistika Klusterreko teknikariak.

Abiapuntuzko ikerketa-asmo hura gauzatzeak asko erakutsi digu fenomeno honen inguruan. Espero dezagun, lan hau, ezereen *amaiera* baino, ildo bereko bestelako lanen *hasiera* bat izatea.

2 Ikerketaren fitxa teknikoa

2.1 Ikerketaren fitxa teknikoa (egileak eta epeak)

- Ikerlariak:
 - o Olatz Altuna - Soziolinguistika Klusterra
 - o Lionel Joly - Soziolinguistika Klusterra
 - o Pablo Suberbiola - Soziolinguistika Klusterra
- Aholkularitza teoriko eta metodologikoa:
 - o Pello Jauregi - EHU – Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
- Elkarrizketatzailea:
 - o Ziortza Sanz
- Bikoteek kontaktazioa:
 - o Talde-lana: elkarrizketak egin diren herrietako Udaletako euskara teknikarien, euskaltegiak irakasleen, euskara elkarteetako teknikarien eta ikastetxeetako irakasleen laguntzarekin.
- Ikerketaren Jarraipen Batzordea:
 - o Erramun Osa - Hizkuntza Politikarako Sailordetza
 - o Ion Aizpurua - Hizkuntza Politikarako Sailordetza
 - o Pablo Suberbiola - Soziolinguistika Klusterra
- Ikerketaren iraupena:
 - o 2008ko martxotik 2008ko abendura

2.2 Ikerketaren helburuak

Bi helburu nagusi izan ditu ikerketa honek:

- 1) Hizkuntza ohitura aldaketaren fenomenoak sakonetik ezagutu eta ulertzea, bikote harremanaren eta familia bidezko hizkuntza transmisioaren testuinguruan.
- 2) Beren arteko hizkuntza aldatu duten bikoteen kasuen sailkapen bat eskuratzea.

2.3 Aztertutako bikoteak

• NONGO BIKOTEAK ETA ZENBAT?

Euskal Autonomi Erkidego osoko bikoteak aztertu dira. Hiru hiriburu-eremuak, alde batetik (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta bestetik udalerririk ez dutenak. Udalerririk ez duten hautaketa bat egin da, ezaugarri soziolinguistikoen eta geografikoen aldetik EAEko aniztasun osoa jasotzen duena.

Kopuruari dagokionez, ikerketaren diseinuan ondorengo kopuruak ezarri ziren abiapuntu moduan: hiriburu bakoitzean hiru bikote aztertzea (3x3=9) eta EAEko hamalau udalerritan,

bakoitzean bi ($2 \times 14 = 28$). Horrela, diseinuan abiapuntuzko planteamendua 37 bikoteren azterketa egitea zen.

Bikoteen kontaktaziorako eta ikerketan parte hartzea proposatzeko udalerrri eta hiriburu guztietan prozedura berdina jarraitu da, eta emaitza ez da kasu guztietan berdina izan. Hiru hiriburuetan planteatutako bikoteak kontaktatu eta aztertu dira. Udalerrietan, ordea, 14 udalerritik 9tan lortu da bina bikote kontaktatu eta aztertzea, beste 5 udalerritan, ordea, ez. Guztira, beraz, hau izan da aztertutako bikote kopurua: $9 (3 \text{ hiriburu} \times 3 \text{ bikote}) + 18 (9 \text{ udalerrri} \times 2 \text{ bikote}) = 27$ bikote. Ondoren zehazten da bikote hauek zein herritakoak izan diren:

- *Balmaseda (0 bikote)*, *Laudio (2 bik.)*, *Irun (0 bik.)*, *Durango (0 bik.)*, *Lasarte-Oria (2 bik.)*, *Bilbo (3 bik.)*, *Donostia (3 bik.)*, *Gasteiz (3 bik.)*, *Mungia (2 bik.)*, *Zarautz (2 bik.)*, *Hernani (2 bik.)*, *Igorre (0 bik.)*, *Tolosa (2 bik.)*, *Beasain (2 bik.)*, *Arrasate (2 bik.)*, *Lekeitio (0 bik.)* eta *Bermeo (2 bik.)*.

• BIKOTEEN EZAUGARRIAK

Aztertutako bikoteek ezaugarri bat izan dute komunean: **aldaketa** bat eman da bikoteko kideen arteko **ohiko hizkuntzan**: lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta aldaketa baten ondoren, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa da.

Hori, eta gorago aipatutako herrien hautaketa izan dira bikoteak kontaktatzeko irizpideak. Hortik aurrera ez da bestelako mugarik jarri: ez adin aldetik, ez eta lehen hizkuntza aldetik edo gaur egun euskaraz duten gaitasunaren aldetik: soilik HIZKUNTZA ALDAKETA egin izana.

• BIKOTEEN LOKALIZAZIOA

Gorago aipatu ezaugarria betetzen zuten bikoteak lokalizatzeko aztergai ziren herrietako euskara teknikariek jarri gara harremanetan, eta beraiei eskatu zaizkie bikoteon erreferentziak. Udaletako euskara teknikariei ezezik, ondorengo hauei ere eskatu zaie informazioa, herriaren arabera: euskara elkarteetako kideei, ikastetxeetako arduradunei, euskaltegietako irakasleei eta baita kasuren batean enpresetan euskara planak koordinatzen dituzten teknikariei ere.

Bikoteekin lehen kontaktazioa eginik, ikerketan beren borondatez parte hartzeko proposamena egin zaie. Hala nahi zutenek galdetegi itxi bati erantzun diote telefonoz, eta ondoren hitzordu bat adostu da elkarrizketarako.

3 Ikerketaren ondorioak (laburpena)

3.1 Egindako azterketa eta horretarako erabilitako ikuspegi teorikoa

Sakoneko elkarrizketa bat egin da bikote bakoitzarekin, bi bikotekideekin batera. Elkarrizketa hau egiteko modua ikerketa honetan erabili den oinarri teorikoaren eta diseinatu den metodologiaren arabera izan da.

Ezin dugu laburpen honetan erabilitako eredu teorikoa bere osotasunean azaldu, ez eta metodologian kontuan hartu diren xehetasun guztien berri eman ere. Dena den, ikerketaren ondorioak ulertzeko lagungarri izango delakoan, erabili dugun ikuspegi teorikoaren ideia nagusiak aurreratzen ditugu hemen:

- Oinarri teorikoari dagokionez, ikerketan aholkulari izan dugun Pello Jauregi EHUKo irakasleak hizkuntza ohituraren aldaketari buruz urtetan ikertutakoa izan da oinarri nagusia: bere doktore tesian landutakoa eta Kuadrillategi egitasmoaren baitan ikertutakoa, besteak beste.
- Horrekin batera, beste hainbat iturritako ekarria ere izan du hemen erabili den gorpuzteko teorikoa. Bi aipatzearen, *aldaketa* fenomenoei buruz Paul Watzlawick Stanford-eko Unibertsitateko irakasleak egin zituen teorizazioak eta Edward De Bono irakasleak *ohiturak* eratzeko moduari buruz emandako azalpen argigarriak.

Ikuspegi teoriko honetan oso kontuan hartzekoak dira ***taldekotasun printzipioa***, ***osotasunaren printzipioa*** eta ***ikuspegi kolektiboa***. Ikus ditzagun:

Bikoteak izan ditugu aztergai ikerketan, eta bikotea talde bezala aztertu dugu, ez bi banakoren batuketara bat bezala. Bi kide “gehi” harremantzeko modu jakin bat, zein izaera propio bat duen egituratzat hartu dugu bikotea.

“Banakoen batuketa” baten eta “talde” baten ezberdintasunaren aspektu hau horrela azaltzen du, esaterako, Jauregik bere tesian:

... taldeak ez dira gizabanakoen batuketak. “Ane + Agurtzane + Josu + Jose Mari” lagun multzoa da baina ez taldea. Gizabanako horiek elkarren ondoan daude baina ez dute elkarrekiko harremanik, ez daude elkarrekintzan, ez zaizkio elkarri egokitu eta ez dute egiturarik sortu. Izatekotan, egiturarik gabeko “multzo” bat izango litzateke, baina inola ere ez talde bat

Izan ere,

.../... gizabanakoarteko harreman berezi eta espezifikoek ematen dizkiote talde bati nortasuna, egitura eta sistematasuna.

Ikuspuntu horretatik, beraz, ikerketarako erabili den oinarri bat ***Taldekotasunaren printzipioa*** da. Horrela laburtuko genuke printzipio hau:

hizkuntza jokaera ez da gizabanakoaren alderdi hutsetik azter daitekeen kontua. Hizkuntza jokaera pertsonen arteko harremanari dagokion zerbait da, eta bikotea da gutxieneko kopurua. Elkarri egokituz eraikitzen da hizkuntza jokaera, eta egokitasunaren emaitza da jokaera ohiko bihurtzea. Hortaz, gizabanakoen elkarrekintzan sorturiko talde-arau batek gidatuko du gerora bakoitzaren jokaera. Talde baten eremua eta egitura dira aztergai nagusiak.

Aipatutako taldeen *nortasunaren* aspektua ere oso kontuan hartzekoa da hizkuntza kontuetan. Izan ere, pertsonen arteko hizkuntza erabilera talde batean ematen da beti, eta talde bakoitzak bere egitura, dinamika eta arauak ditu. Edo hitz batean laburtzarren, bere *nortasuna*. Gutako bakoitzak talde batean egiten duen hizkuntza erabilera talde horren ezaugarri horietara egokitu ohi da, norberaren ezaugarri pertsonalak kasu askotan bigarren maila batean geratuz.

Ikuspegi honetan azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat talde hauen *sistema* izaera da, lan honetan ***Osotasunaren printzipioa*** bezala izendatu duguna:

taldeak eremu sistemikoak dira. Hau da: nortasun, izaera eta ordena jakin bat dute. Talde edo osotasun baten nortasuna ez da kideen (edo zatikien) batuketa hutsa, nahiz eta kideek berea den zerbait eman dioten taldearen izaerari. Osotasuna funtsezko ezaugarria da, zatikiak ondoriozkoak dira.

Hala enbor bizi batetik sor daitezke adar ugari, eta haiek itxura berezia emango diote zuhaitzari, baina ez gero uste alderantzizkoa ere egia denik, hots, ezinezkoa da adarren metaketa hutsetik enbor bizi bat sortzea. Ikerketa estatistikoek nekez jaso dezakete osotasunari darion usaina, errealitatea zati ugaritan sakabanatzen dutelako. Ikerketa tipologikoak hobeto egokitzen dira honetara, osotasun motak antzematen dituztelako; eta bide hori hautatu dugu ikerketa honetan.

Nortasun bat garatzen duen talde batean –bikote batean, gure kasuan- ematen den hizkuntza ohituren aldaketa bezalako prozesu konplexu bat aztertzeko, taldea *sistema* ikuspegi batetik aztertuta egitea da egokiena gure ustez. Talde edo *sistema* hauek bere kideak, bere harremantzeko modua eta bere ingurunea dituzte, eta etengabeko dinamikan daude. Dinamika horretan kide bakoitzak bere lekua du, Jauregik azaltzen digun moduan:

Taldeak sistema egituratuak dira. Arautuak daude kideen arteko harremanak eta zerikusi handia du horretan taldearen egituran kide bakoitzaren posizioak. Kide guztien eragina ez da iguala taldearen bizitzan.

Aipatu berri ditugun ideia hauekin, beraz, honela labur genezake bikoteen hizkuntza ohituren aldaketa aztertzeko erabili dugun ikuspegi teorikoa, bikoteen *taldekotasunari* eta *osotasunari* dagokionean:

Hizkuntza erabilera taldeen baitan ematen da, eta gutako bakoitzak gure hizkuntza-joera indibiduala egokitu egiten dugu taldearen dinamikara eta arauetara. Talde bakoitzak –gure kasuan, bikoteek- sistema bat osatzen du, bere nortasuna, egitura eta dinamika propioak dituena. Hizkuntza erabilera testuinguru horretan ematen da.

Oinarri hauek aintzat hartuta, beraz, bikoteen azterketa ez dugu oinarritu bi kideen ezaugarri indibidualetan. Aitzitik, talde gisa bikote bakoitzak garatu duen harremana edo *izaera* ezagutzera bilatzen dugu –hizkuntza erabilerari dagokionez, beti ere-, eta izaera

horretan nola eman den aldaketa prozesua, nola garatu den kasu bakoitzean harremaneko ohiko hizkuntza aldatzera eraman dituen dinamika.

Azterketa modu honetan eginda, maila teorikoan *ikuspegi kolektibo* bat erabiltzen ari gara, ez *indibiduala*. Gure ustez, hizkuntza erabileraz, haren gaineko ohituraz eta ohitura horren aldaketaz ari garela, fenomenoaren ulermenerako askoz lagungarriago zaigu ikuspegi *kolektibo* batetik aritzea, ikuspegi *indibidual* batetik askoz ere zailagoa delako bertan eragiten duten indarrak, baldintzak eta bestelakoak jaso ahal izatea. Horrela, azterturiko bikoteek talde gisa izan duten historian eta eraman duten **prozesuan** hizkuntzak zein leku izan duen aztertu da, eta prozesu horien ezaugarriak bilatu, talde horien –bikoteen-osotasun ikuspegi batetik, eta ez, aldiz, bikotekide bakoitzaren ezaugarri indibidualetan azpimarra jarritz.

Oinarri teoriko hau erabilia¹, beraz, 27 bikote hauei eginiko elkarrizketak aztertu dira, eta azterketa honetatik bi ondorio-multzo atera ditugu, ikerketaren helburuei erantzunez:

- **Batetik, bikoteen sailkapena.** Bikote bakoitza eta bere prozesua “mundu” bat da, noski. Baina, ba al dago ezaugarri komunik prozesu hauetan? Eta ezberdintasun kualitatiborik? Bikote hauek egindako aldaketa-prozesuak hiru motatan berezi ditugu, 3.2. atalean ikus daitekeenez.
- **Bestetik, hizkuntza ohituraren aldaketaren “gakoak”.** Zein irakaspen atera dugu 27 kasu hauen azterketa kualitatibotik? Nola laburtu ditzakegu aztergai izan dugun prozesu hauen funtsezko puntuak, fenomeno honen *gakoak*? Lau mailatan berezita eskaintzen dira gako hauek 3.3. atalean.

¹ Ikerketaren emaitzen laburpena den testu honetan aipatu oinarri teorikoaren ideia nagusiak jasotzen dira soilik.

3.2 Harremanaren hizkuntza ohitura aldatu duten bikoteen sailkapena

Bada sailkapena bera azaldu aurretik egin beharreko bereizketa bat. Gorago azaldu dugunez, aztertutako bikote guzti hauek bazuten, ustez, ezaugarri komun bat. Horren arabera egin dugu kontaktazioa eta horregatik aztertu dugu beren kasua. Gogora dezagun zein zen ezaugarri hori:

***aldaketa** bat eman da bikoteko kideen arteko **ohiko hizkuntzan**: lehen beraien arteko harremana erabat edo nagusiki gaztelaniaz zen, eta aldaketa baten ondoren, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa da*

Azterketak erakutsi digu, ordea, hori praktikan ez zela horrela kasu guztietan. 27 bikoteetatik 7ren kasuan ezin da esan ezaugarri hori "betetzen" denik. Zazpi kasu horietan ez da eman aldaketa *nabarmen* edo erabateko bat harremanean gaztelaniazko ohituratik euskarazko ohiturara. Batzuen kasuan, *betidanik* egin dutelako neurri batean euskaraz eta gaztelaniaz, eta ezin da esan kasu horietan ohituraren aldaketa nabarmen bat egon denik. Eta beste batzuen kasuan, aldiz, gaur egun ere beraien arteko harremana nagusiki gaztelaniaz dela ondorioztatzen delako beren kontakizunetik.

Horrek ez du esan nahi, noski, hizkuntza aldaketa fenomenoari buruzko informazio baliagarrikerik atera ez dugunik aipatu zazpi bikoteen azterketatik. Alderantziz. Baina bai esan nahi du ezin ditugula sailkatu ikerketan aintzat hartu dugun ezaugarri horren arabera, zazpi kasu horietan betetzen ez delako.

Ohar hori eginik, ikus dezagun sailkapena bera, eta zein diren definitutako bikote-mota bakoitzaren ezaugarriak.

Bikote motak bereizteko ez da bikotekideen ezaugarri indibidualen hustuketa eta alderaketa egin lan honetan, oinarri gisa hartu baitugu *aldaketaren gakoak*, funtsean ez direla indibidualak, taldekoak, edo kasu honetan, bikoteko harreman mailakoak baizik. Hau da, harreman bakoitzean eratzen den dinamika norberaren ezaugarri indibidualei nagusitzen zaielakoan gaude.

Hori horrela, euskara beraien artean erabiltzeari dagokionez bikote hauek egin dituzten *prozesuak* edo *bideak* aztertu eta alderatu dira bikote motak bereizteko ere. Modu honetan, ondorengo hiru bikote motak bereiz ditzakegu beren arteko harremanaren hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteen artean:

- ***Berreskuratu* motako bikoteak: berezko zutenari bide eman diotenak.**
- ***Eskuratu* motakoak: beren nahia egunez egun egi bihurtu dutenak.**
- ***Euskaratu* motakoak: nahiak beraiengan forma hartu eta egi bihurtu dutenak.**

Ikus dezagun zerk ezaugarritzen dituen bereizi ditugun hiru bikote-mota hauek edo hiru prozesu-mota hauek:

- **Berreskuratu**: bikote hauetan euskarazko gaitasuna hasieratik zuten bi kideek, eta horrek bereizi egiten ditu bikote hauek beste bi motetatik. Bikote hauek beren arteko harremana gaztelaniaz finkatu zuten eta gero uneren batean erabaki egin

zuten aldatzea, eta *hortik aurrera euskaraz* egitea. Eta erabaki hori praktikara eramaten dute. Aurrez euskarazko gaitasuna izanik, euskarazko ohitura finkatzeko deskribatzen den prozesua beste bietan baino laburragoa da mota honetako bikoteetan, eta beste biekiko ezberdina aspektu askotan.

- **Eskuratu:** harremana hasi zenean bikotekide bat edo biak ez ziren euskaraz hitz egiteko gai. Hala ere, bikote hauetan hasieratik bazegoen guk “aldaketaren hazia” bezala izendatu dugun zerbait. Hau da: harremanaren hasieratik, bikotekide biek edo batek *argi zuen* bere bizitza -eta tartean, harremana bikotearekin- gerora begira euskaraz izatea nahi zuela. Hala irudikatzen zuen hasieratik. Esanenezake, nolabait, hizkuntza aldatzeari buruzko hausnarketa “aurrez egina” zegoela bikote hauetan. Ondorioz, mota honetako bikote askotan ez da inoiz harremaneko hizkuntza aldatzeari buruz “erabakirik (esplizitorik) hartu”. Praktikan, ordea, hasieratik eman dira pausoak harremana euskaratzen joateko, eta pausoka-pausoka beren arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera pasa dira.
- **Euskaratu:** mota honetako bikoteetan, harremanaren hasieran nolabaiteko nahia badago euskararekin, baina aldiz, ez dago ez bi bikotekideen euskarazko gaitasunik ez eta “aurrez egindako hausnarketarik” ere. Bikote hauek ez zuten irudikatzen harremanaren hasieran beren bizitza edo harremana gerora begira euskaraz izango zenik, nahiz eta euskara ikasteko interesa izan edo euskara gustukoa izan. Bikote mota honetan, euskara ikasteko pausoak eman dira lehenik (kide batek edo biek, kasuaren arabera), eta pauso horiek eman ahala, beren bizitza eta harremana euskaraz izateko *nahia eskuratzen* joan dira, nahi hori “bere” egiten. Prozesu horretan, mota honetako bikote gehienek une batean erabaki egin dute beraien artean *euskaraz ahalik eta gehien* egiten joatea, nolabait, eta prozesu horrekin aurrera jarraitu dute. Gero eta gehiago joan dira euskaraz egiten, beraien arteko harremana erabat edo nagusiki euskaraz izatera iritsi arte.

3.3 Hizkuntza aldaketa prozesuaren gakoak

Beren harremaneko hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatu duten bikoteen hiru motak ikusi ondoren, gatozen ikerketaren emaitzen bigarren atalera, ikertutako fenomenoaren *gakoetara*.

Azterturiko bikote bakoitzak, prozesu bakoitzak, baditu noski bere ezaugarri propioak. Baina badira komunean dituzten ezaugarriak ere, harremaneko hizkuntza aldatzearen fenomenoaren *ezaugarritzeko* balio digutenak, prozesu hauen *gakotzat* har ditzakegunak, hain zuzen.

Ez du esan nahi jarraian aipatzen diren gako *guztiak* bikote hauen prozesu *guztietan* gertatu direnik. Kasu bakoitzean gako horien konbinaketa ezberdina da, partikularra.

Baina gako bezala deskribatzen ditugun hauetako asko errepikatu egiten dira, ñabardura batekin edo bestearekin, aztergai izan ditugun bikoteen kasuetan. Eta beraz, pentsa izatekoa da, antzeko prozesuak aurrera eramaten dituzten beste bikote batzuetan ere gako hauetako asko errepikatu egingo direla modu batean edo bestean.

Lau ataletan berezi ditugu gako hauek. Laburpen honetan gako hauen zerrenda bat eskaintzen da, bakoitzaren gutxieneko azalpen batekin, sintesi moduan.

Lau ataletatik lehenengoa GAKO OROKORRAK dira, ikerketaren irakaspen orokortzat har ditzakegunak. Bigarren atalean MOTIBOAK laburtzen dira, zergatiak. Bikote hauek aldatzera “mugitu” dituzten motiboak edo arrazoiak. Jarraian, hirugarren atalean ZAILTASUN mailan dauden gakoen laburpena eskaintzen da, prozesu hauek aurrera ateratzeko gainditu behar izan direnak, hain zuzen. Eta bukatzeko, laugarren eta azken atalean bikote hauek zailtasun horiek gainditzeko erabili dituzten ESTRATEGIAK laburtzen dira.

3.3.1 GAKO OROKORRAK:

1.- Aldaketa handiak, motibo handiak

Bikoteko harremaren hizkuntza aldatzeak norbere bizitzaren parte garrantzitsu bat aldatzea suposatzen du. Eta parte garrantzitsu hori aldatzeko arrazoi garrantzitsu bat egoten da tartean.

2.- Lorpenak azpimarratzen dituzte zailtasunak baino gehiago

Askotan “zailtasun” gisa aipatu ohi diren kontu asko (ikasi bitarteko ezerosotasunak, akatsak egitea...), “suposatutzat” ematen dira bikote hauen kontakizun gehienetan, eta aldiz, “lorpenetatik” hitz egiten da gehiago.

3.- Bolada batean, lehentasuna euskarari, ohitura finkatu arte

Bikote askoren aipuetan ikusten da bolada batean beren egunerokoaren “energia” zati handi bat aldaketa-prozesu honi dedikatu diotela, bolada batez gaia “lehentasun”tzat hartu dutela.

4.- Erabilera etorri da erabiltzetik

Bietako batek edo biek gutxi zekiten bikoteetan, behin oinarrizko gaitasun batetik aurrera, ez da gertatu lehenik gaitasun “on” bat eskuratzea *eta gero* bikotean hitz egiten hastea. Beraien arteko erabilera ez da etorri, nolabait, gaitasun on baten *ondoren*, erabileratik bertatik baizik.

5.- Arraro eta zail, baina egiten hasitakoan... uste baino errazago

Bikote harremana hasterako euskarazko gaitasuna biek izan, baina erdarazko harremana finkatu duten bikoteetan, esan genezake: a) aldatu aurretik ematen du oso zaila/gogorra izango dela, b) aldaketaren hasieran ere hala da (bolada batean), baina c) behin praktikan aldatzen hasita, uste baino errazagoa egiten da.

6.- Prozesuaren zaintza

Aldaketa-prozesu hauen deskribapenean askotan agertzen da *zaintza* izendatu dezakegun zerbait. Erdara *beti eskura, toki guztietan* dagoenez, bikote hauek garatu dituzte estrategiak “euskaran mantentzeko” edota “euskarara itzultzeko” elkarrizketetan.

7.- Seme-alabetatik bikotera, nekez

Beraien ohitura oso nabarmen edo erabat aldatu duten bikoteetan, seme-alabak *jai* *aurretik* aldatu dutela beraien arteko hizkuntza – edo aldatzen hasi behintzat. Hipotesi gisa formulatzen dugu: *behin seme-alabak jaiota, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea jai* *aurretik baino askoz zailagoa da.*

8.- Ez dute aldatu seme-alabengatik (bakarrik), baina ohitura finkatzen lagundu dute

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen eta indartzen lagundu du seme-alabak izateak, hauekin harremana *erabat euskaraz* izan baitute gehienek.

9.- Prozesu bakoitza, mundu bat

Bikote batzuen kasuan, biharko harremana euskaraz izatea “beti” irudikatu izan duten zerbait da, beste batzuetan aldiz helburu horretatik oso urrun zeuden hasieran. Harreman bakoitzaren bilakaera konplexua da, eta hainbat gertaerek baldintzatzen dute prozesua.

3.3.2 ZERGATIAK. ZERK “MUGITU” DITU BIKOTE HAUEK ALDATZERA?

Jarraian laburbiltzen dira aztertutako bikoteek, *Zer dela eta aldatu zenuten zuen arteko harreman-hizkuntza gaztelaniatik euskarara?* galderaren harira gehien aipatzen dituzten zergatiak. Maiz, erantzunetan zergati edo arrazoi bat baino gehiago aipatzen dituzte bikotekideek, hamaika modu ezberdinetan konbinatuta.

“Arrazoi” edo “zergati” hauek laburtzeko garaian, elkarrizketetan aipatutako jatorrizko hitzak ahalik eta gehien mantendu dira bere horretan, baina aldi berean, ikuspegi laburtu bat eskaini ahal izateko, berdin(tsu)tzat jo ditugunak batean laburtzeko egokitu dira.

1.- Euskaldun izan nahia

Ohitura aldatzeko gehien aipatzen den zergatia da hau; elkarrizketetan modu ezberdinetan aipatua agertzen da: euskaldun izan nahia; sentimendu abertzalea izatea; kontzientzia politikoa izatea: euskaldun sentitzea (ez espainol); euskaraz ez jakitearen amorrua izatea...

2.- Familian jasotakoari jarraipena ematea

Etxean gurasoengandik kideetako batek edo biek euskara jaso dutenen kasuan, baina gero bikote harremana erdaraz garatu, aldatzeko zergati nagusietako bat da.

3.- Gurasoek eman ezin izan zigutena seme-alabei eman nahia

Kasu batzuetan, bikote hauen gurasoek ez zieten euskaraz egin baina bai transmititu zieten euskararenganako nahi bat, maitasun bat. Horrelakoetan aipatzen den motibo bat horrela labor genezake: gure gurasoek nahi ziguten euskara eman, baina ezin izan zuten; guk gure seme-alabei bai.

4.- Bizi naizen tokiko hizkuntza eta kultura neureganatzea

Bizi zaren lekuan txertatuta egotea azpimarratzen da kasu honetan. Funtsean, aurreko biak bezala, hau ere lehenengo zergatiarekin oso lotua dago: *euskararen mundu sinbolikoa* eskuratu nahia, *hemengoaren parte* izan nahia...

5.- Besteak niregatik gaztelaniaz egitera ez behartzea

Normalean kontzientzia euskaldun batekin lotuta aipatzen da arrazoi hau, baina besteekiko errespetua edo “ez aldarazi nahia” ere gehitzen zaio kasu hauetan. Ingurune euskaldunetan agertzen da, gehienbat: Zarautzen eta Beasainen, esaterako.

6.- Seme-alaben etorrera irudikatzea

Normalean bikote hauetan hizkuntza aldaketa prozesua seme-alabak izan aurretik abiatu da². Dena den, asko aipatzen da aldatzeko zergatietan seme-alaba euskaldunak izan nahia, edota seme-alabei etxe-giro euskaldun bat eskaintzea.

² Aztertutako 27 bikoteetako batzuk ez dute seme-alabarik gaur egun (4 bikotek, hain zuzen), beste guztiek bai.

7.- Garaiko giro sozio-politikoaren inposaketaren kontrako erreakzioa eta garaiko euskalduntzearen aldeko giroa

Kasu batzuetan oso garbi adierazten da “garai hartako giro sozial eta politikoa” desberdina zela, eta giro hark eragin nabarmena izan zuela beraiek *euskalduntzeko* eta euskara erabiltzeko gogoia sentiarazteko. Transizioko lehen urteetan *euskalduntzeak* beste *esanahi sozial* bat zuen (gaurkoaren ezberdina).

8.- Euskararen aldeko giro soziala

Giro soziala aipatzen da kasu honetan ere, baina beste elkarriketatu-mota baten aldetik: etxetik –gutxiago edo gehiago- euskaldunzahar izan, kaleko giroan erderara jo eta garaiko *giro sozialak* lagunduta edo eraginda *berea* –*euskara*- *baloratzera* pasa izana azaltzen da aldatzeko motibo gisa. Nabarmenenen Arrasateko elkarriketetan aipatzen da, baina baita beste batzuetan ere.

9.- Gaztelania arrotza izatea

Azken arrazoi hau, ia bitxikerizat har dezakegu, bikote gehien-gehienak egoera honetatik urrun baitaude. Aztertutako bikote batean agertu zaigu soilik: ez bati eta ez besteari ez zaio batere “naturala” egiten gaztelaniaz espresatzea, eta momentuan elkar ulertzeko gaztelania behar eta erabiltzen duten arren, aldaketa prozesu batean daude egun.

10.- Hasieran, asmoa ikastea, gero...

Eta bukatzeko, beste arrazoi-multzo bat, orain arteko zerrendarekin lotua baina ezberdindu beharrekoa. Bikote hauen kasuan –kide baten kasuan behintzat- euskara ikasten hastea ez zen izan gero *bikoteko hizkuntza ohitura* aldatzeko asmoarekin: hasiera batean, euskara ikastea zen asmoa, ez besterik. Baina, ikastearen prozesu horretan zehar, euskara beste leku bat hartzen joan da bere bizitzan.

3.3.3 ZAILTASUNAK:

1.- Nahi bezala espresatzeko mugak:

Zailtasun hau elkarrizketa gehienetan aipatzen da, modu batean edo bestean: zer bait esan bai, baina ez “nahi duzun bezala”, xehetasun gutxirekin, nahi zenukeen “txispa”rik gabe, freskotasun faltarekin...

2.- Gaztelaniarako joera: behin eta berriz “ateratzen” zaizu

Hau ere bikote askoren kontakizunean ageri da. Euskara erabiltzen hasi, ongi moldatu, eta hala ere, egoera askotan “gaztelania atera”tze hori. “Berezko” joera horri aurre egiteak, une batzuetan nekea ere sortzen die, etengabe pentsatzeak eta hizkuntzak nahasten ibiltzeak batzuetan dakarren buruko neke sententzia.

3.- Aldatzen zailenak diren egoerak:

Badira egoera batzuk³ bikoteen aldetik *aldatzeko bereziki zailak* bezala deskribatzen direnak. Ondorengo hauek dira nagusienak:

a) Eztabaidak eta haserrealdiak

Zerrendatu ditugunetan, zalantzarik gabe hau da bikote guztietan gehien errepikatzen dena. Bikote batzuen kasuan, euskara beraien harreman-hizkuntza “normala” duela 20-30 urtetik izan arren, jarraitzen dute elkarrizketetan erdera (ere) erabiltzen.

b) “Paper garrantzitsuak” egiteko: bankuko gauzak, lege kontuak...

c) Barru barrutik sentimenduak ateratzeko

d) Zenbakiak adierazteko, kalkuluak egiteko

e) Esaldi eginak, erderazko espresioak

f) Bolada estresatuak eta agobiatuak

g) Pertsona batzuekin aldatzea zailago

4.- Arraro sentitzea:

Badira hainbat une hizkuntza aldatuta “arraro” senti zarena. Gehiago aipatzen dute hau, esaterako, elkar ezagutzerako euskarazko gaitasuna bazuten bikoteetan, “elkarrekin ikasten” joan direnetan baino. Bikote batzuk deskribatzen dute izan dutela bolada bat non bazirudien bikotekidea “beste pertsona bat” zela.

5.- Deserosotasunak, bai bikotearekin edo bai familiakoekin

Aldatu nahi izateak eskatu die bikote hauei zenbait egoera “deseroso”tan “eustea”, aldaketarekin aurrera egiteko: bikote barruko rol banaketak aldatzea eta hori deseroso izatea, ez dakien kidea bestearen familia joan eta ulertu ez arren isilik egotea (besteei ez aldarazteko)...

³ Bikoteei egin zaizkien elkarrizketak orokorrak izan badira ere, bere helburuak kontuan izanik familia bizitzarekin eta etxe inguruko eguneroko egoerekin lotutako gaiez hitz egin da nagusiki (ez hainbeste, adibidez, lan arloko kontuez). Ondorioz aldatzeko “zailago” bezala aipatzen diren egoera hauen zerrenda ez da exhaustiboa. Litekeena da oso beste hainbat egoera egotea hizkuntza aldatzeko zailak direnak, baina hemen elkarrizketetan gehien atera direnak sintetizatzen mugatu gara ezinbestean.

6.- Zuzendu bai, baina... noraino?

“Irakaslea” etxean izatea erosoan izan daiteke, baina hitz egiten duzun aldiro norbait ondoan “zuzentzen” egotea... nekagarria ere bai! Aipatzen duten zailtasun bat da “zuzentze” edo “erakuste” horri uneoro tamaina bilatzen jakitea.

7.- Solaskide falta..., edo solaskide “egokiena”

Elkarrizketa batzuetan aipatzen da “norekin praktikatu” faltan izatea, batez ere gune erdaldunetan. Eta baita ere solaskide “egokiak” izatearen falta: hau da, ereduak eskaintzen dizkizutenak gaztelaniara pasa gabe, zuk “mantxo” hitz egin arren entzuteko pazientzia dutenak...

8.- “Euskaldunberri”... betirako?

Hau elkarrizketa batzuetan bakarrik aipatzen da zailtasun moduan: euskara ikasi eta urte asko geroago oraindik “euskaldunberri” izaten jarraitzea, zeure burua euskaldunen artean bat gehiago bezala onartua ez ikustea. “... *noiz bukatzen da euskaldunberri izate hori?*”

9.- Umeen ikasketa azkarra

Beren motibazioan zailtasun gisa deskribatzen dute gutxi batzuk umeen ikasteko “abiadura”.

3.3.4 ESTRATEGIAK:

1.- Dosifikatu, errazetik zailera

Bi kideak euskaldun zaharrak ez ziren kasuetan –aztertutako gehienak-, beti egon da ikasketa prozesu bat tartean bilakaera hauetan. Hala izan denean, euskarazko erabilpena dosifikatzen joatea askok aipatzen dute: errazenak egin zaizkien egoeretatik hasi dira, zaillegia zaiena momentuz gaztelaniaz eginez eta progresiboki gehitzen joanaz.

2.- Nekatutakoan edo “agobiatutakoan”, gaztelania ere erabili

Hau ere asko aipatzen da. Mila egoera suertatzen dira non espresio bat ez zaigun ateratzen, edo pentsatu beharrak nekatzen gaituen, edo nahi baino tentsuago gauden... bikote askotan deskribatzen da jarrera *malgu* eta aldiberean *konstante* moduko bat, horrela labur daitekeena: euskara gero eta gehiago erabiliko dugu, ahal dugun guztietarako, baina tartean behar dugun uneetan gaztelania erabiltzeari uko egin gabe.

3.- *Gaitasun estrategikoa*: non elikatua bilatu eta lorpenak baloratu

Bikote hauek asmatu dute bai beren euskara ikasketarekin eta bai ohitura aldatzearekin aurrera jarraitzeko uneoro “behar zutena” bilatzen. Bi aspektu nabarmentzen dira “gaitasun estrategiko” dei dezakegun horretan:

- a) Euskaraz “non elikatua” bilatzen jakitea
- b) Lorpenak baloratzea: bikote hauek beren prozesuan *lorpenei begiratzen* jakin dutela esango genuke, zailtasunei eta trabei baino gehiago.

4.- Prozesuaren *zaintza*

Kasu honetan elkarrizketatuek ez dute hitz hau erabili (guk hautatu dugu), baina berak jasotzen du ondoen gure ustez bikote hauetan asko agertzen den aspektu bat, aldaketa prozesu hauetan gakokoetako bat bezala ageri zaiguna. Bikote hauetan azaltzen da nola bietako batek –edo biek- izan duten *prozesuaren zaintza* ikuspegi hori, “gainean egote” hori, zenbait kasutan esango genuke “egoskor” aritze hori, *behin eta berriz* euskarara bueltatzeko ariketa eginaz.

5.- Une batean *pausoa eman*

Bikote batzuetan –normalean lehendik euskarazko gaitasuna bazutenak- deskribatzen da une bat non bikoteak zirt edo zart egitea erabaki duen: *nahikoa da, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu*. Pauso horrekin, bide eman diote beren baitan zuten nahi bati.

6.- Bolada batez, ikasten, buru-belarri

Deskribatzen diren ikasketa prozesuetako beste estrategia bat bolada batean horretara buru-belarri jarri izana da. Esango genuke, bikote hauetako kide askok une batean lehentasuna eman diotela euskara ikasteari, eta bolada horretan modu intentsuan (eta beraz nahiko azkar) ikasi dutela.

7.- Bat bestearen irakasle

Oso orokorra da hau ere. Bolada batean ez bada bestean, bikote hauetan ia guztietan bat bestearen “irakasle” izan da. Kasu guztietan, ordea, lortu dute ikaste-irakasle prozesu hori elkarren arteko eguneroko harremanean ongi txertatzea.

8.- Ikasi eta erabili, batera

Bi kideek hasieratik euskarazko gaitasuna zutenean ezik, gainerakoetan nahiko estrategia orokorra izan da ondorengoa: *zekitena praktikatzen joan dira, eta praktikatze horrekin ikasi dute*. Bikote hauetan ez da gertatu –ez dugu jaso, behintzat- kideetako bat “X” mailara iritsi arte “gaztelaniaz jarraitu” eta behin horretara iritsitakoan euskaraz hastea. Zekitena erabiltzen joan dira, eta modu horretan, nolabait *batera* eskuratzen joan dira, bai beraien artean euskaraz egiteko ohitura edo erosotasuna eta bai gaitasuna, gero eta zabalagoa.

9.- Euskaraz dakitenei, euskaraz

Aztertutako bikotekideetako askok, bikote mailan ezezik, beren inguruko beste pertsona askorekin ere euskarazko harremanak eratu dituzte, edota lehen gaztelaniazkoak zituztenak euskarara aldatu.

10.- Beraien artean euskaraz; seme-alabekin, erabat euskaraz

Bikote hauetako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen lagundu du seme-alabak izateak. Askok ahalegin berezia egin dute ikasteko *seme-alabak jaiotzerako* gaitasun maila on bat izateko, eta beste askoren kasuan, berriz, bikoteko euskarazko harremana indartu egin du seme-alabak tartean izateak, normalean haiekin *erabat* egin baitute guztiek euskaraz.

4 Bibliografia

- Buruntzaldeko familia bidezko hizkuntza transmisioa indartzeko egitasmoa: Koordinazio Batzordea (2007) *Hizkuntza-ohitura aldatu duten bikoteen gaineko ikerketa*. Argitaratu gabeko txostena.
- Damasio, Antonio (2005) *En busca de Spinoza. Neurobiología de la emoción y los sentimientos*. Madrid: Crítica.
- De Bono, Edward (1992) *Yo tengo razón, tu estás equivocado*. Barcelona: Ediciones B.
- De Bono, Edward (1996) *El pensamiento práctico*. Barcelona: Paidós [kendu?].
- Dörnyei, Zoltán. (2008) *Estrategias de motivación en el aula de lenguas*. Barcelona: Editorial UOC.
- Egizabal, Diego (2004) *Kuadrillategi 2001-2003. Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*. Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
- Egizabal, Diego, Huegun, Axier eta Jauregi, Pello (2004) Kuadrillategi egitasmoa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (103-111)
- Goleman, Daniel (1996) *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Jauregi, Pello (1998) *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia*. Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jauregi, Pello (2003) *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokoerak*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Ruiz Olabuénaga, José Ignacio (2007) *Metodología de la investigación cualitativa* (4. edizioa). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Soziolinguistika Klusterra (2008) *Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketalana*. Ikerketaren proiektu-txostena. Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari aurkeztua.
- Suberbiola, Pablo (2004) Euskararen erabileran nondik eragin?: Zenbait gogoeta. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 53 (53-66).
- Unanue, Aitor (2006) *Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plana. Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia: planteamendu teorikotik aplikazio praktikora*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.
- Watzlawick, Paul; Weakland, John H. eta Fish, Richard (2007) *Cambio. Formación y solución de los problemas humanos* (12. edizioa). Barcelona: Herder.